

GETXOKO BALKOIAK ETA LEIHOAK EDERTZEKO VIII. LEHIAKETA



ARGAZKI- LEHIAKETA



GETXOKO BALKOI ETA LEIHOETAKO II. ARGAZKI-LEHIAKETA

Parte hartzeko eskaerak ekainaren 3tik uztailaren 8ra bitartean aurkeztu behar dira. Horretarako, bidali mezu elektronikoa bat (gaia: "Balkoietako argazki-lehiaketa") getxoasteberdea@gmail.com helbidera, zure izena, telefonoa eta balkoi edo leihoetako argazkiaren kokapena adieraziz.

Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki bidali ahalko ditu gehienez.

Bi argazki onenek **100 euroko saria** jasoko dute (Getxoko dendetan lorezaintzako produktuengatik trukatzeko), baita diploma bat ere.

Ez dira aintzat hartuko Getxoko balkoiak eta leihoak apaintzeko VIII. lehiaketan saritutako balkoi edo leihoetako argazkiak.

IZEN-EMATEAK:

✉ getxoasteberdea@gmail.com ☎ 605 74 90 64



Antolatzailea:

Babeslea:



Getxo
bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

Getxo
lozezaintza



Getxoko balkoiak eta leihoak edertzeko VIII. lehiaketa

Oinarriak



Lehiaketaren helburua

Lehiaketa honen helburua Getxoko udalerriko ingurumenaren kalitatea eta estetika hobetzea da herritarren parte-hartzearen bitartez. Hala, landare eta loreen garrantzia azpimarratu nahi dugu hiri-ingurune atseginagoa eta erakargarriagoa lortzeko, Getxon bizi diren zein udalerria bisitatzen duten pertsona guztien gozamenenerako.

Parte-hartzaileak

Getxon bizi diren pertsona guztiek parte hartu ahalko dute lehiaketan, aldez aurretik izena emanda.

Izen-emateak

• Parte hartzeko eskaerak ekainaren 3tik uztailaren 8ra aurkeztuko dira. Parte hartzeko, bidali mezu elektronikoa bat getxoasteberdea@gmail.com helbide elektronikora (Gaia: "Balkoiak"), zure izena, telefono-zenbakia eta etxebizitzaren helbidea adieraziz; gainera, lehiaketan parte hartuko duten balkoi edo leihoetako argazkiak erantsi beharko dituzu.

Garapena

- Lehiaketan parte hartzen duten balkoiek eta leihoek landare biziak erabili beharko dituzte apaingarri gisa. Balkoiak kaletik ikusteko modukoak izango dira.
- Parte-hartzaile bakoitzak balkoien apaintetarako erabiliko dituen elementuak nahierara aukeratuko ditu, bideak, espaloiak eta etxebizitzetako sarrerak betiere errespetatuz.
- Zintzilik dagoen edozein elementu ondo finkatuta egon beharko du, haizearen aurka bereziki. Apaingarrien kokapenak inola ere ez du segurtasuna arriskuan jarriko. Bide publikoan objektuen erorketen ondorioz gerta litezkeen istripuen ardura lehiaketan parte hartzeko izena eman duen pertsonarena izango da.
- Ekainaren 3an hasi ahal izango zara balkoiak apaintzen, eta 2024ko uztailaren 8ra arte egon beharko dute apainduta.

Epaimahaia

- Getxoko Ingurumen Saileko kideek eta loregintzan eta hiri apaintetan adituak diren profesionalak osatuko dute lehiaketaren epaimahaia.
- Eztabaidak eta bozketak atek itxita egingo ditu epaimahaia.
- 2024ko uztailaren zehar egingo du epaimahaia leiho eta balkoien balorazioa.

Balorazio irizpideak

Epaimahaia honako kalifikazio-irizpide hauek aintzat hartuko ditu:

- Apaintetaren originaltasuna eta sormena
- Apaingarrien kalitatea
- Multzoaren harmonia eta diseinua
- Konplexutasuna

*Balkoi edo leiho berak bi urtez jarraian baino ezingo du lehiaketa irabazi.

Sariak

- Kategoria bakarra egongo da: Balkoi edo Leihorik onena.
- 300 euroko lehen sari bat, eta 150 euroko bigarren sari bat banatuko dira, Getxoko dendetan lorezaintzako produktuengatik trukatzeko sariak, hala nola diploma bat.
- Epaimahaiaren erabakiaren adierazpena eta sarien banaketa uztailaren egingo dira, Algortako Kultur Aretoan izango den ekitaldi publiko batean. Parte-hartzaileei aldez aurretik jakinaraziko zaizkie eguna eta ordua.

Konpromisoa

- Getxoko Udaleko Ingurumen Saila telefonoz jarriko da harremanetan irabazleekin, eta saritutako pertsonen izena udalerriko webgunean jakitera emango du.
- Parte-hartzaileek euren balkoiei eta leihoi argazkiak ateratzeko baimena emango dute. Antolakuntzak, halaber, argazkiak zabaltzeko eskubidea izango du bere irizpideen arabera.
- Lehiaketan parte hartzeak hemen adierazitako oinarriak onartzea dakar.

